



## **STEILASen partetik unibertsitatez kanpoko irakasleen sektorean mobilizazio propioak aurrera eramaten saiatu bagara ere, ez dira baldintzak eman**

Ikasturte honetako udazkenean hainbat greba egun izan ditugu, bai zerbitzu publikokoan baita hezkuntzako sektorean deitu ditugunak ere. Ordutik hona mahai negoziatzaile eta Sailarekin bilerak izan baditugu ere, ez da borondate errealik egon. Hori horrela, gaur-gaurkoz ez daukagu oraindik ezer zehatzik mahai gainean.

STEILASek mahai eta elkarrizketa guztietan **langile guztientzat** lan baldintzak hobetzeko proposamen zehatzak eta egingarriak plazaratu ditu:

- Erretirorako neurri zehatzak eta gazteberritze plana ezartzea.
- Lan-zama jaistea langile guztiei.
- Hezkuntza Sailak langileei eman beharreko arreta zuzena berreskuratzea.
- Kontziliaziorako neurri errealak ezartzea eguneroko beharrei erantzuteko.
- Ordezko langileen udako kobrantza berreskuratzea.
- Erosahaltenaren %20ko galera berreskuratzea.
- Ordezkapen guztiak lehenengo egunetik betetzea.
- Baimen eta lizentzia guztiak ordezkoei zabaltzea.

Gure sektoreak berezko ezaugarriak dituenaz, gure eskubideak sektoreko mahaietan negoziatu eta borrokatu behar dira eta gure ustez momentu hau ezinbestekoa zen mobilizazioen indarra baliatuz, negoziazioa bizkortzeko eta mahai gainean dauden gaietan benetan eragiteko. Edonola, STEILASen argi dugu batasun sindikala dela tresnarik aproposena mobilizazioak eraginkorrak izan daitezen eta aldi berean batasun sindikala bilatu dugu.

Beraz, gure nahia mobilizazioak deitzea izan bada ere, oraingoan ez da posible izan batasun sindikal hori ez delako eman. Izan ere, momentu honetan sindikatuek muzin egin diote gure proposamenari dituzten lehentasun ezberdinengatik.

STEILASek ere sektore publikoan martxoaren 12rako deitutako grebarekin bat egiten du, zerbitzu publikoak defendatzea eta bertako langileon lan baldintzak borrokatzea ezinbestekoa delako. Era berean mobilizazio egun horretan gure sektoreko aldarrikapenak ozen ohiukatzeko prest eta gogotsu gaude, zuen babesarekin batera. Etorkizunean ere sektoreko gehiengo sindikal baten eta lan baldintza duinen alde borrokatzen jarraituko dugu, Hezkuntza Sail honek hezkuntza publikoko langileekin duen konpromisoa bete arte.

